


Errobotik euskal itsasbazterrera

Ibilbide guziak eskuragarri Turismo Bulegoetan ►►



MAILA
3

ERTAIN

KONPOSTELAKO BIDEA - *Baztango bidea*

BASUSARRITIK
AINHOARAT

Konpostelarako ibilbide alternatibo bat da, aspaldian beilariek erabilia eta geroz eta famatuagoa. Hemen aurkeztu ibilaldiaren zatia Basusarritik joaten eta Ainhoan bukatzen da. Autoendako bideetan zehar iragaiten bada ere, azken horiek ahal bezainbat saihestu eta ibiltariei egokitako bide eta xendretatik pasatzen da ibilaldia.



Abiatzeko bidea:

Baztango bidea Baionatik pasatzen eta Errobiko bazterretatik doa hegoruntz. Hemen aurkeztu zatia Basusarritik abiatzen da, Errobi bazterreko Jantot bidetik. Kasu, zirga bide horretan autoak aparatzeko toki guti baita.

D 623368 - 4811076 Zirga bidea segitu puntaraino eta Uztaritzeko zentrora joan errepidetik. Karrika nagusian segitu, St-Vincent elizaren aitzinetik pasatu. Herriko etxean, Ferrondoa **1** 625217 - 4805951 karrika hartu eskuinaldean. RD 932 bidera eramaiten duen Latsagia karrikan (Lavoir) segitu eskuinaldean. Oinezkoen pasabidetik zeharkatu eta Eliza Hegui karrika hartu ezkerrealdean. 80 metrotan, haritz zaharraren heinean, eskuinera hartu Dorrea izeneko patarrean, eta hilerria pasatu ondoren, ezkerredera hartu Saint-Michel bidetik RD 88 bidera heltzeko. RD 88-a segitu ezkerrealdean 220 metroz, gero RD 250 bidera joaten den pista bat hartzeko eskuinaldean. Ezkerredera hartu eta bidearen bazterretik kontuz ibili itzulguneraino. Ezkerredera segitu lotizamendu bat zeharkatzen duen Etexehasia bidean. Kilometro bat egin ondoren, ball-trap pasatu eta gero, ezkerredera joan, zeharkatu behar den hesi batetik **2** 623609 - 4803999 doan pista bat hartuz. Haranttoaren puntaruntz joaten da pista, zubixkatik zeharkatu beharko den errekaraino iritsi arte. Ezkerredera segitu larre eta pentzeetatik, hots mendi gainetarainoko bidera doan igaitetik (RD 88) **3** 624112 - 4802343. Zeharkatu eta parean segitu piska bat igaiten den pista zabal batean, gero Zuraide eta Ezpeletako haranttora doan jait-

siera luze bat hasteko. Panorama miresgarria eskainia zaigu. RD 918 bidera iritsi aitzin, ezkerredera doan bide ttipi bat hartu **4** 624715 - 4799368 Ezpeletako herrira joiteko (20minutu). Herriko landetxe edo aterpe bat atxeman daiteke elizatik hurbil. RD 918 bidera heltzean, eskuinera hartu eta bide horretan segitu 300 metroz. Gero ezkerrean den bide ttipi bat hartu Zuraidera **5** 623911 - 4799506 joiteko. Komeni da bertako St-Jacques eliza bisitatzea (400 metrotan). Ondotik, ibilbidea Pinodietako lepora igaiten da, Aprendixenia bidea harturik. Lepoan, RD 20 bidea zeharkatu pareko bide mundrunatuan segitzeko. Lehen bidegurutzean, eskuinera hartu hegoruntz **6** 623862 - 4798207 igaiten den pista zabal harritsu batetik pasatuz. 850 metro egin ondoren, bide-adarkatzearen heinean, ezkerredera segitu 400 metro urrunago zeharkatu beharko den errekarara heldu arte. Ibilaldiaren puntu gorena da **7** 623340 - 4796844 eta hortik hasten da Ainhoara jaiteko jaitziera luzea. Haraneko lehen baserrien heinean, bide mundrunatu batean segitzen du pistak. Lehen bidegurutzean ezkerredera hartu, herriko karrika nagusira doan bidetik. Karrikaren puntan, hegora begira eta bihurgunearen heinean, pareko karrika ttipi batean sartu **8** 621731 - 4795792. 500 metroz, GR®10-aren seinaletika dugu eta bide-adarkatzean, ezkerredera hartu Dantxarinearra joiteko bidean. Ibilaldiaren bukaera Dantxarinear markatzen da **9** 621252 - 4794478.

2.25

3.25

4.20

5.10


5.30

6.25

7.00


7.45



8.15





D Basusarri,
Jantot bidea
(Errobiko bazterra)

GPS : 623368 - 4811076

 **8.15 oren**
(joaita)

 **25 km**
 **+617 m**
-548 m


seinaletika

D -tik **8** -rat 
8 -tik **9** -rat 



Huts egin behar ez dena

- Zeharkaturiko herrien arkitektura ondarea
- Konpostelako ondare historikoa
- Bista panoramikoak
- Ezpeletako aterpea

-  • Ibilaldi horrek ez du itzuli osorik egiten. Itzultzeko garraioa aitzinetik antolatu.
- Kasu egin zirkulazioari idekia den bideetan, batez ere RD-etan.

Xehetasun gehiagorentzat:



Ezpeletako Turismo Bulegoa
Ezpeletako Baroien Jauregia – 64250 Ezpeleta - Tel : 05.59.93.95.02
Mail : espelette.tourisme@wanadoo.fr - Web : www.espelette.fr



« Guides randos 64 » zerrenda osoa: www.rando64.fr

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!

ZUEN IBILALDIA ONGI HAUTATU

Maila eta seinaleak



Desmaila: ibilaldi bakoitzarentzat, igaite guziaz kalkulatuak dira.



Iraupena: ibilaldi bakoitzaren iraupena adierazgarri gisa erabiltzen da. Ibilaldiaren luzetasuna, desmaila eta menturazko zailtasunen arabera neurtzen da.



Ibilaldiak

Ibilaldiak zailtasunen arabera sailkatuak dira, eta gida orri bakoitzean koloreen bidez desberdinduak dira.

Ibilaldien FF-ren gomendioak segitzen ditugu.

▶ 2 oren baino guttiagoko ibilaldia
Idealki familiarekin egiteko, ongi markatuak diren bideetan.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Ibiltari ohituentzat. Batzuetan desmailak edota guneko kiroitsuak.

▶ oren baino guttiagoko ibilaldia
Familiarekin egin daiteke. Bideetatik, batzuetan pasabide zailagoak.

▶ oren baino gehiagoko ibilaldia
Ibiltari esperientziadun eta kiroitsuentzat. Ibilaldi luze edota zailak (desmaila, pasabide gogorak).

Balizak segitu bide onean egoteko

Xendren balizak	Herri eta PR [®] -en xendrak	GRP [®]	GR [®]	VTT	Zaldiketa
Norabide ona					
Ezkerre hartu					
Eskuinera hartu					
Norabide txarra					

GR[®], GRP[®] eta PR[®] Ibilaldien Frantses Federazioak erregistratu markak dira.

Ibilaldi batzu kalitate eskakizunen arabera hautatu ditu Ibilaldien Frantses Federazioak, PR[®] labelaren pean.



Bidezidor seinaleak

Bideen GPS helbideak

Erreferentziako neurria:
WGS 84 - UTM 30T
Ibilbideen GPS bideak
telekargatu:
www.rando64.fr

GOMENDIO BALIAGARRIAK

▶ Meteo 08 92 68 02 64 edo 32 50 edo www.meteofrance.com.

Errobitik euskal itsasbazterrerako bideetan zehar ibiltzeak errespetuzko jarrera bat eskatzen du natura eta lurralde horiek biziarazten dituzten gizon eta emazteei begira. Arau batzu errespetatu behar dira.

Natura zaindu

▶ Zuen hondarkinak atxikitzeke zaku bat hartu ▶ Fauna eta flora errespetatu ▶ Balizak dituzten xendretan egon

Zuen burua babestu

▶ Material egokirik gabe ez joan
▶ Bakarrik joaiteak arriskuak ditu
▶ Erreketatik datorren ura ez edan
▶ Meteo so egin

▶ Europako urgentziako deia 112

— *Jarduerak eta jendeak errespetatu* —

▶ Hesiak berriz hetsi
▶ Xakurrarekin joaitea ez da komeni. Kasu guzietan, sokatik atxiki.
▶ Suak debekatuak dira
▶ Ibilaldien bazterretan diren jabego pribatuak errespetatu

Kasu !

Usa ehiza garaian (urritik azarorart), ehizaldietan (urte osoan zehar) eta lurra erretzean (abendutik martxorart), ibilaldi batzu saihestu behar dira. Turismo bulegoetan xehetasunak galdegin.

Egiteko gomendioak:



Gure xendrei buruzko iritziak

Eco-veille

Proposatzen dizkizuegun ibilaldiak arreta handiz hautatuak izan dira. Bideei dagokienez, zuen iritzi eta oharrak ongi etorriak dira atxikitzea edo mantentzea ahalbidetzeko. Zuen iritziak emaitera gonbidatzen zaituztegu Errobi Herri Elkargora deituz, 05 59 93 65 94.

Ecoveille[®] orria telekargatzen ahal duzue: www.rando64.com/ecoveille

Ecoveille[®].behaketa orri bat ere eskuratzen ahalko duzue.

www.rando64.fr

oinez, bizikletez edo zaldiz, Biarno eta Euskal Herria deskubritu!